



“Tomas Garbizu” Lezoko Udalaren Musika Eskolak antolatzen du *Lesoinu*-k, Musika Aste Pedagogikoak, 2017an hogeita hamaika urte beteko dituela jakinarazteko. 80. hamarkadaren erdialdera abentura bat zirudiena, hogeita hamaika urte ondoren gure herrian, eskualdean eta Euskadin musikala eta artistikoa den erreferente bat izatera iritsi da.

Zaila da adierazten hitz gutxitan 31 aldiz antolatutako aste pedagogiko horietan musikarekin eta musikarentzat bizitako une atseginak, baina ekimen horren arrakastaren lau ardatzak zeintzuk diren azpimarratu nahiko genituzke:

- 1) Ikasleak: euren izaeraren zati bat eskaini diote edo eskaintzen ari dira musikari. Musika tresna ia beren gorputzaren zati bat izatera iritsi da.
- 2) Gurasoak: Gurasoak eta ingurukoak laguntza behar izan denean hor izan eta lanean aritu dira, jasoko zuten sari bakarra euren gogobetetasunera eta gizartearentzako merezi duen zerbaitetan ari zirela jakitera mugatuko zela jakinda ere.
- 3) Langileak: Zentroko irakasleak eta beste langileak behin eta berriz erakutsi dute musikazaleak izateaz gain, Musika Aste Pedagogiko hauek antolatzen ere badakitela.
- 4) Erakundeak: Ekimen hau errealitate izan dadin erakundeak eta laguntzaileak, gure herriaren egunerokotasunari balore erantsia ematen diola sinetsiz eta hori aurrera ateratzeko apustu eginaz, Aste Pedagogikoari beharrezkoa zuen euskarri materiala eta ekonomikoa eman diozuenak.

Lau zutabe horiek osatzen dute 31 urte egingo dituen ekimen honen benetako protagonistak.

XXXI. aldia izanik, guztion atseginerako izatea espero dugun hainbat musika ekitaldi programatu ditugu.

Aipatu aste pedagogiko honen datak ondokoak izango dira: Martxoaren 24, 25, 26, 30 eta 31 eta Apirilaren 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7 eta 8.

Lesoinu, izaera pedagogikoa duen musika zikloa da, ikuspegi ezberdinetatik musika bizi duten guztiei zuzendua; hau da ikasleei, irakasleei edota molde orotako musikazaleei bideratua.

Asko dira ziklo honetan parte hartu duten taldeak, bai bertakoak, bai kanpokoak (Frantzia, Finlandia, Suedia, Italia, Estonia, Lituania e.a.).

Oraingo honetan, Euskal Herriako talde ezberdinak entzuteko aukera izango dugu. Gainera formazio ikastaroak eta beste jarduera batzuk antolatu ditugu (Ikus eranskina).